

Gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten aldeko konpromisoaren harira

"EMAKUMEA ETA ORAINGO GIZARTE ALDAKETA" DERITZON TOPAKETA ANTOLATU DU EROSKI-K

- Banaketa enpresen artean, EROSKI da ardura postuetan emakume gehien duena
- EROSKI k Berdintasun Behatokia du 2005etik
- Topaketan, hor izan da EROSKI ko Sare Komertzialeko zuzendaria, Rosa Carabel, eta lidergo femeninoaz eta enpleguaren sorkuntzaz jardun da
- Bertan izan dira, halaber, Erguete-Integracion fundazioko presidentea, Carmen Avendaño, Mugarik Gabeko Medikak erakundeak EAEn, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian duen ordezkaria, Nagore Esquisabel eta Convent Santa Clara fundazioko Lucia Caram moja.

Bilbo, 2018ko urriaren 5a.- [EROSKI](#) k Euskalduna Jauregian egin du topaketa gaur, "Emakumea eta oraingo gizarte aldaketa" lelopean. Topaketa horretan, mundu osasungarriago, bidezkoago, berdinzaleago eta orekatuago baten alde diharduten eta lidergo femeninoa hartua duten emakumeak bildu dira. EROSKI k, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten aldeko konpromiso irmoan, gogoeta bat egin nahi izan du helduek zer-nolako ardura duten egunerokoan bizitzako arlo guztietan berdintasuna belaunaldi berriei transmititzeko.

Hitzaldi zikloan, hor izan dira, EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendari Rosa Carabel ez ezik, Erguete-Integracion fundazioko presidentea, Carmen Avendaño, Mugarik Gabeko Medikak erakundeak EAEn, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian duen ordezkaria, Nagore Esquisabel, eta Convent Santa Clara fundazioko Lucia Caram moja.

Txostenen ondotik, berriz, mahai inguru bat egin dute emakume gazte ekintzaileekin, eta mintzagai izan dira ibilbide eraldatzaileak egin dituzten emakumeen lekukotasunak, zeinek erakutsi baitute talentua den lekuan generoak ez duela garrantzirik. "Emakumea eta Ekintzailetza" leloarekin, emakumeek ekintzailetzarako dituzten zailtasunez hitz egin dute, dituzten proiektuez eta enplegua sorrarazteak dakartzkien erronkez. Atal horretan izan da enpresari gazte bat, orain gutxi ipini duena EROSKIren supermerkatu frankiziatu bat, eta harekin

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Sara Coteron (*The Redmediakoa*), Sol Busca (*Enclavedesolekoa*) eta Ohiane Pardo (*Amarenakekoa*)

Entzuleen artean, hor ziren Bilboko Udaleko Berdintasuna, Lankidetzeta eta Bizikidetzeta saileko zinegotzi ordezkaria, Itziar Urtasun, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua, Teresa Laespada.

Berdintasun foroak helburu gisa du erakundeek, kolektiboek eta entitateek emakume-gizonen berdintasunaren alde egiten duten lana pilatu, ikusarazi eta indartzea. Topaketa honen oinarrian daude Emakunderen Foro ibiltariko kontzientziazte ekintzak. Horrez gain, kooperatibak gonbidatuak zituen Bizkaian berdintasunaren alde eta genero indarkeriaren aurka diharduten elkarteak eta administrazioak. Bestalde, bertan ziren euskal unibertsitateetako eta Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ikasle-irakasleak, zeinek lantalde bat osatzen baitute EROSKI bultzatuta, zertarako eta "balioetan hezteko" izeneko foroa lantzeko, iaz Cesar Bona maisuak sortua.

Genero berdintasuna

EROSKIko Sare Komertzialeko zuzendari Rosa Carabelek hitza hartu duenean, lidergo femeninoaz eta enpleguaren sorkuntzaz jardun da. *"EROSKI n errotik erauzi nahi ditugu gizon-emakumeen desberdintasunak indartzen dituzten portaerak; hori dela eta, orekaren printzipioan oinarrituta, kooperatibako kideen aukera profesionalak eta pertsonalak hobetzearen alde jotzen dugu"*, esan du Carabelek.

Genero berdintasuna argi eta garbi islatzen da EROSKIko kooperatiba gisa eraturiko estatutuetan. EROSKI n %81 emakumeak dira. Kooperatibak aintzat hartzen du berdintasun printzipio hori enpresako politika guztietan, prozesu guztietan eta erakundeko maila guztietan, zertarako eta aukera berdintasuna bermatzeko, berariaz eta tazitoki, bai laneko harremanetan eta bai tratu pertsonalean ere.

"Banaketa enpresen artean, EROSKI da ardura postuetan emakume gehien duena, %73. Zuzendaritza kontseilu paritarioa du, hiru gizonen eta hiru emakumeen osatua, eta, kooperatibaren gobernu organo korporatibo gorenetan —Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Soziala—, %64 emakumeak dira", azaldu du EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Berdintasunerako Behatokiaren Iorpenak EROSKI n

Hamar urtetik gora dira EROSKI hor ari dela etengabe lanean *Berdintasunerako Behatokiaren bitartez*; haren zeregina da erakunde osoan printzipio hori zaintzea. Hain zuzen ere, behatoki horrek gizon-emakumeen artean gizarte berdinzaleago bat bilatzen du. Erakunde horretatik, era berean, beste entitate eta administrazio batzuekin lan egiten du kooperatibak. Ponentziak antolatzen ditu kanpoko ekitaldietarako, eta kanpainak egiten ditu bezeroekin dendetan; eta Emakunderekin nahiz Ongizate Ministerioarekin batera egiten du lan.

Kooperatibako langile bazkideen ordezkariak osatzen dute organismo hori, eta sei eremu lantzen ditu, batez ere: hizkeraren erabilera, oztopo fisikoak eta osasunekoak kentzea, oztopo sozialak kentzea, garapen pertsonala eta profesionala, bizitza pertsonala eta profesionala uztartzea eta aitortpenaren komunikazioa. Kooperatibak martxan jarri ditu dagoeneko 58 neurri eremu horietan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)